



PRENTSA-OHARRA

Goizuetak artzain eta baserritar emakumeak omenduko ditu ekainaren 1ean, IV. Emakume Artzainen Egunean

Lekunberri, 2025eko maiatzaren 20a – Goizuetak hartuko du datorren igandean, ekainaren 1ean, *Emakume Artzainen Eguna* ospakizunaren laugarren edizioa. Plazaola Turismo Partzuergoak sustatutako ekitaldi honek Larraunen, Lekunberrin, Araitz-Betelun eta Leitzan izan ditu aurreko edizioak. Aurten, gainera, *Talo Egunarekin* bat egingo du, eta *Mendialdeko Azoka Ibiltaria* izango da bertan.

Egitaraua 11:00etan hasiko da, azoka zabaldu eta taloa egiteko tailerrarekin. Goizean zehar, taloari buruzko tresna, argazki eta dokumentuen erakusketa izango da, herriko *talogileen* postua, *burruntzian* dastatzea, arkume errea eta gaztanbera elaborazio erakustaldia barne.

Ekitaldirik hunkigarriena 13:00etan izango da: Goizuetako artzain emakumeen omenaldia. Aurreko urteetako omenduen ordezkariak emango diete lekukoa. Ekitaldi honek artzain eta gaztagile emakumeen lana aitortu eta balioan jartzen du, betiere genero ikuspegitik, euren zeregina ekonomiaren, paisaiaren eta Plazaola-Mendialdeko kulturaren funtsezko parte dela azpimarratuz.

Gazta, arkumea eta taloa: protagonista gastronomikoak

Gazta, batez ere Idiazabal motakoa, protagonista nagusietakoa izango da. Plazaolako gaztagileek euren postuak jarriko dituzte denboraldi berriko gaztak eskaintzeko: naturala, keatua, *gastazarra*...

Gogoratzen dugu ekitaldi hau antolatzeko *Gorritz* (Leitza), *Bikain* (Etxarri-Larraun), *Beloki mendia* (Uztegi-Araitz) eta *Ekollaondo* (Goldaratz-Imotz) bezalako ustategietako emakumeei esker egiten dela.

Taloe ere protagonista izango da. 11:00etatik 12:00etara tailerrak umeentzat egingo dira eta erosteko aukera izango da Goizuetako talogileen postuan.

Plazan bertan, gaztanbera prestatzeko erakustaldia izango da goizean zehar.

Beste alde batetik, antxumea erreko da burruntzian eta 11:30etatik aurrera pintxoak zerbitzatuko dira.





Goizuetako artzain, baserritar eta gaztagile emakumeen omenaldia – 13:00etan

Ekitaldi nagusia izango da 13:00etan: Goizuetako artzain, baserritar eta gaztagileei omenaldia. Aurreko urteetako omenduek emango diete lekukoa, eta antolatzaile eta laguntzaileen ordezkariak opari oroigarri bana emango diete. *Aurreskua*, kantuak, larrosoondoaren entrega sinbolikoa eta denboraldi berriko gaztaren mozketa (ibilbide luzeko artzain baten eskutik) osatuko dute ekitaldi xume baina hunkigarria.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria: tokiko produktua eta artisautza

Goizuetako Udalak hartu du Larraunen lekukoa (Gorritin ospatu zen maiatzaren 18an). Aurtan, azoka ibiltariaren seigarren edizioa da, eta 19 postu bilduko ditu Goizuetan: elikagai postu (gazta, ezti, taloa, haragia, ogia, arrautzak...) eta artisautza postu (zeramika, metala, ehungintza...).

Azoka honek bost udalerritan egingo du geldialdia apiriletik azarora bitartean. Jarduera osagarriekin lagunduta (tailerrak, erakustaldiak, bisita gidatuak...), lehen sektorea eta tokiko produktuak ezagutzera ematea du helburu. Horren bidez, kontsumo arduratsua eta ingurunearekiko konpromisoa sustatu nahi dira.

Datozen azokak:

- Irailaren 14an Leitza: XIX. *Talo Eguna*
- Azaroaren 2an Jauntsarats (Basaburua): *Gaztain Eguna*

Antolakuntza eta babes instituzionala

Ekitaldia Mendialdeko 10 udalek antolatzen dute (Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberri), Cederna Garalur eta Plazaola Turismo Partzuergoaren koordinazio teknikoarekin, eta HABELARTE nekazarien elkartearen eta Araizko Zaporeak, LeitzEKO eta Bertatik Bertara Dinamika kontsumo taldeek babestuta.

Babeslea: Nafarroako Gobernua – Gobierno de Navarra

